

# I. AURKEZPENA



Turismoaren Lehiakortasun Plan hau Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako 2006-2009ko Plana definitzeko prozesuaren barnean hartuta dago.


Euskal turismo-sektorearen diagnostikoa ingurunean gertatutako aldaketan eta 2000-2004ko ESEP Plana (Ekonomia Sustatzeko Erakunde arteko Plana) gauzatzean lortutako emaitzen arabera eguneratzea 2006-2009 aldirako Euskal Turismo Politikaren plangintza berriak arrakasta izateko aldeaz aurretik egin beharreko jardura da.

Diagnostikoa oinarrituta eta hainbat fasetan, honako hauek lortu nahi dira:

- Turismo-sektoreak behar dituen *estrategien formulazioa* egokitzea eta, horretarako, adierazitako al-dian sektoreak lehian izango duen tokiaren ikuspegia berrikustea eta bidezko estrategiak ezartzea, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren eta hainbat agente sozial, ekonomiko eta politikoren artean Euskadi 2015 Lehiakortasun Foroaren esparruan egindako lanetik sortutako *Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Planarekin* bat etorriz.
- Aurreikusitako helburuak lortzeko *tresna egokiak* proposatzea. Horien artean, *bereziki aztertuko da kluster sektorialeko eredu baten bideragarritasuna*.
- Turismoaren Lehiakortasun Plana kudeatzeko antolamendu- eta aurrekontu-proposamen bat planteatzea eta *Euskadin turismoa sustatzeko sozietate publiko bat* sortzeko aukera bereziki aztertzea.

Ondoren, orrialde hauetan aurkeztuko dugun Plana lantzeko garatutako metodologiaren eskema bat dugu.

### Turismoaren lehiakortasun-plana lantzeko metodologia: faseak eta sekuentziak



Dokumentu honen edukiak *LKS Consultores* enpresak egindako lanaren emaitza dira. Lan horren oinarriak honako hauek izan dira:

- Turismoaren jarduerari eta bilakaerari buruzko datuen eta estatistiken bilketa, azterketa eta tratamendua. Hona hemen datu eta estatistika horien iturriak: EUSTAT, INE, FRONTUR, FAMILITUR, Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren turisten portaerari buruzko IBIL-TUR OPERAZIOA eta abar.
- Azterlanen eta txostenen analisisa. Horien artean, honako hauek azpimarra daitezke:
  - Sektoreak Euskadin duen egoeraren diagnostikoa (2000-2004ko ESEP Plana formulatzeko egindako diagnostikoa, Sailak berak turismoari buruz sortutako urtekariak eta monografikoak, Euskadiko Turismoaren Gida Profesionala eta abar).
  - Euskal herritarrek turismoa ikusteko modua.
  - Turismoaren joerak nazioartean (MTE, WTTC, Exceltur eta herrialde igorle nagusietako behatokiak eta organismoak).
  - Produktuari buruzko monografikoak (TurEspainia eta abar).
  - Beste batzuk.
- Sektoreko agenteei egindako elkarrizketak. (Fase honetan, 31 elkarrizketa egin dira guztira).
- Batzorde Zuzendari batekin egindako kontrasteak. Batzorde hori proiektua lantzeko sortu da bereziki, eta Turismo Sailburuordetzako eta SPRI sozietateko (hau da, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren mendeko Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietateko) arduradunek hartzen dute parte bertan).

Diagnostikoaren emaitzak (Batzorde Zuzendariak baliozkotu ondoren), ikuspegiari eta helburuei buruzko aurrelaburpen/proposamen batekin batera, Euskadiko turismoaren industriari lotutako pertsona esanguratsuek osatzen duten Kontseilu Sektorial bati aurkeztu zaizkio.